



FUNTSEZKO SOZIETATEAK - ALIANTZAK - ELKARTEAK

Gure proiektuak behar bezala funtzionatzeko, funtsezkoa da hainbat erakunde eta aliatuarekin lankidetzan aritzea. Aliantza hauek gure proiektuari sendotasuna, sinesgarritasuna eta eragin handiagoa ematen diote, bai gizarte mailan bai antolaketa mailan.

Lehenik eta behin, GKEekin (Gobernuz Kanpoko Erakundeekin) lan egitea oso garrantzitsua da. GKE hauek esperientzia handia dute osasunean, pobrezia murrizten, animalien babes arloan eta krisi humanitarioetan, eta badakite nola antolatu baliabideak gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko. Haien bidez, gure proiektua errealagoa eta eraginkorragoa bihurtzen da.

GKE motak: tokikoak eta nazionalak/internazionalak

- Tokiko GKEak: ingurune hurbilean lan egiten duten erakundeak dira, komunitatearen beharrak ondo ezagutzen dituztenak. Hauekin elkarlanean aritzeak aukera ematen digu gertuko pertsonei laguntzeko, hala nola pobrezia egoeran dauden familiei, gazteei edo adinekoei. Gainera, tokiko GKEekin harremana zuzenagoa eta pertsonalagoa izaten da, eta horrek gardentasuna eta konfiantza handitzen ditu.
- Nazionalak edo nazioarteko GKEak: erakunde hauek baliabide gehiago dituzte eta eragin handiagoa lortzen dute eskala handiagoan. Askotan krisi humanitarioetan, gerran dauden herrialdeetan edo egoera larriko eremuetan esku hartzen dute, ura, arropa, janaria edo osasun-laguntza eramanez. Gure proiektuaren bidez bildutako diruak aukera ematen du horrelako egoeretan laguntza zuzena emateko.

Bi GKE mota hauekin lan egiteak gure proiektuari ikuspegi zabalagoa ematen dio, bai tokiko mailan bai nazioartean.



Bestalde, GKEekin elkarlanak konfiantza eta sinesgarritasuna ematen dio gure plataformari. Haien izena eta ibilbidea ezagunak direnez, errazagoa da erabiltzaile berriak erakartzea, boluntarioak lortzea edo bestelako erakundeekin hitzarmenak egitea. Gainera, profesionalak, baliabideak eta lan-esperientzia eskaintzen dituzte, gure eguneroko lana erraztuz. Halaber, epe luzerako jarraipena, ebaluazioa eta prestakuntza ere eskain dezakete, gure proiektuak etengabeko eragina izan dezan.

Aplikazioa garatzeko, enpresa teknologiko fidagarri baten beharra ere badugu. Horregatik, Sngular aukeratu dugu, bere ibilbide sendoagatik, egonkortasunagatik eta gaitasun tekniko zabalagatik. Nazioarteko presentzia duen kontsultore teknologikoa da, eta proiektu digital konplexuak modu osoan garatzeko gai da, diseinutik hasi eta garapenera, ezarpena eta mantentzera arte. Gainera, metodologia arinak erabiltzen dituzte, eta horrek komunikazio ona eta gure beharretara egokitzeak malgutasuna bermatzen du.

Era berean, logistikan eta bidalketetan AMAZON enpresarekin aliantza egitea erabaki dugu. Amazonek banaketa-sare oso zabala eta eraginkorra dauka, eta eskaerak modu azkarrean, seguruan eta jarraipen-sistemeekin entregatzeko aukera ematen du.

Horri esker:

- Bidalketak fidagarriagoak eta zuzenagoak izango dira.
- Erabiltzaileek paketearen egoera uneoro ikusteko aukera izango dute.
- Gure plataformak ez du biltegirik edo banaketa propioa antolatu beharko, kostuak eta antolaketa-arazoak murriztuz.
- Zerbitzuaren kalitatea handituko da eta erabiltzaileen esperientzia hobetuko da.

Azkenik, beste erakunde mota batzuekin ere lankidetzat bilatuko dugu, hala nola liburutegiak, kultur etxeak edo udal zerbitzuak. Erakunde hauek funtsezkoak dira proiektua gizartean ezagutarazteko, bigarren eskuko produktuen zirkulazioa sustatzeko eta kontsumo arduratsua bultzatzeko. Adibidez, liburutegiekin



elkarlanean jardunez, bigarren eskuko liburuen trukea edo dohaintza erraztu ahal izango dugu, kultura eskuragarriago bihurtuz eta baliabideen berrerabilera sustatuz.

Gurekin elkarlanean egongo diren GKEk:

Médicos Sin Fronteras (MSF): Mundu osoko larrialdi sanitarioetan laguntzen du, gerretan, epidemietan edo pobrezia handiko eremuetan.
Esteka: <https://www.msf.es>

EMERGENCY: Gerrek eta pobrezia larriak eragindako pertsonak doan artatzen ditu hainbat herrialdetan.
Esteka: [https://en.wikipedia.org/wiki/Emergency_\(organization\)](https://en.wikipedia.org/wiki/Emergency_(organization))

CARE International: Pobrezia murrizten eta komunitateak indartzen lan egiten du; osasuna, ura, hezkuntza eta garapena lantzen ditu.
Esteka: https://en.wikipedia.org/wiki/CARE_International

BRAC: Munduko garapenerako erakunde handienetako bat da; hezkuntza, osasuna eta komunitate-garapena lantzen ditu.
Esteka: [https://en.wikipedia.org/wiki/BRAC_\(organisation\)](https://en.wikipedia.org/wiki/BRAC_(organisation))

Born Free Foundation: Animalia basatiak babesten ditu, trafikoaren eta atxilotzearen aurka borrokatuz.
Esteka: https://en.wikipedia.org/wiki/Born_Free_Foundation

International Animal Rescue (IAR): Animaliak erreskatatu eta birgaitu egiten ditu, eta komunitateekin lan egiten du haien habitatak babesteko.
Esteka: <https://www.internationalanimalrescue.org>

World Animal Protection: Animalien ongizatea mundu osoan hobetzen du, legeak eta praktika arduratsuak bultzatuz.
Esteka: https://en.wikipedia.org/wiki/World_Animal_Protection



Iturria:

Sngular: Nazioarteko presentzia duen kontsultore teknologikoa da.

Esteka: <https://www.sngular.com/es/>